

**Fitxa teknikoa / Ficha técnica**Izenburua / Título: **Errukiaren saria**Egilea / Autor: **Iñaki Irazu**

Saila / Colección: Poesia, 37

ISBN / EAN: 978-84-9109-228-5

Salneurria / Precio: 14 € (BEZ barne – IVA incluído)

Orri kopurua / N° páginas: 144

Formatua / Formato: 13 x 20,5 cm

Egilea / El autor

Iñaki Irazu Garmendia Asteasun jaio zen, 1954an. Bertan eman zuen haurtzaroa. Nerabe eta gaztaroa, berri, Andoain herrian. Ekonomia ikasketak egina. Ogibidez, euskara irakasle eta bikoiztaile izana. "Villa de Bilbao" poesia saria bereganatu zuen. Jabier Muguruza kantariak musikatu dizkio zenbait poema. Bilbon bizi da.

Lana / La obra

Estatuko funtzionarioek lanerako duten bulego bat. Lan egin edo ikasi ondoren herrira ekartzen zaituen autobusa. Agure-atsoak arratsean jarrita egoten diren kaleko petrila... Eguneroko bizimodu egiten dugun leku horietan, denon baitakoak diren leku horietan, garatzen dira kontakizun hauek, poema narratiboak, kronikak.

Aldian behin, ordea, bulego horretako mutil gaztea, harrizko petrileko atso hori, autobuseko asentuan doan etxeoandrea, bat-batean, tupustean, beraren minera etortzen da, barruko zauria zabaldu egiten zaio: orduan, min horrek eraginda, boz bat askatzen du isiltasuna urratuz. Urratuz, bai, ezen boz horiek arrakalak dira, eten bat ohiko elekan. Eta boz horiek, ukabil itxi airera bihurtuaren eran harro, xuxurla isilean edo ahora jaio gabe bular barruan itoa izan, gauza bera bilatzen dute: jasoak izatea, entzunak izatea, justizia baten aitortpena, kontsolamena, errukia.

Gazte hori, atso hori, etxeoandre hori... gu denok gara, eta haien bozak aditzean jabetzen gara geure burua ari garela aditzen, guri ere badagozkigula.



9 788491 092285